

Hamabigarrena. Izena: Liburutegiaren erabiltzaileen kudeaketa

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.b) artikulua: Egin beharreko tratamendua, helburua denean interesduna alderdi den kontratu bat exekutatzea edo interesdunak eskatutakoari jarraituz kontratuaurreko neurriak aplikatzea.
- b) Tratamenduaren xedeak: Nafarroako Parlamentuko liburutegiko erabiltzaile-txartela egiten zaien pertsonen zerrenda, xede izanik liburutegirako irispidea, liburu-maileguak, erreklamazioak eta abar kudeatzea.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: Erabiltzaile arruntak: foru parlamentariak, talde parlamentarioetako langileak eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak. Erabiltzaile bereziak: liburutegia erabiltzen duten herritarrak.
- d) Datu-kategoriak:
 - Izena
 - Deiturak
 - Heldua (bai ala ez)
 - Jaioteguna
 - Pasahitza
 - Irakurle-mota
 - 1. kodea (sexua:)
 - 2. kodea (bizilekua:)
 - 3. kodea (nahiago den hizkuntza:)
 - Helbidea
 - Telefonoa
 - Posta elektronikoko helbidea
- e) Hartzzaileen kategoriak: ez dago lagapenik
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetan: dpd@parlamentodenavarra.es.